

**LASARTE-ORIAKO HAUR ETA GAZTEEN XXXVII LITERATUR LEHIAKETA 2024**

Lasarte-Oriako Udalak, bere Kultura Batzordearen bitartez eta gure udalerriko haurren eta gazteen literatur sorkuntza bultzatzeko eta sustatzeko xedez, Lasarte-Oriako Haur eta Gazteen XXXVII. Literatur Lehiaketarako deialdia zabaltzen du, ondoko oinarri hauen arabera:

OINARRIAK**1.- Partehartzea**

Lehiaketan, Lasarte-Orian bizi diren edo bertako ikasleak diren euskarazko idazleak, parte hartu ahal izango dute, hauek argitaratu gabeko idazlanak aurkeztu beharko dituztelarik.

2.- Formatu digitalean aurkeztea, posta elektronikoz bidaltzeko

Lanak formatu digitalean aurkeztu beharko dira, A4 tamainan, espazio bikoitzean mekanografiatuta, Idazlanek izenburua baino ez dute izan behar, eta, beraz, ez dute egilea identifikatu dezakeen xehetasunik. Aurkeztutako lanarekin batera, erantsitako FITXA bete behar da, eskatutako datuekin.

3.- Entregatzeko modua eta epea.

Fitxategi batean egindako lana: izenburua.doc/pdf eta datuen FITXA beste fitxategi batean: izenburua_datuak.doc/pdf posta elektronikoko BAKAR batean bidaliko dira honako helbide honetara: : literatur.hurgazte2024@lasarte-oria.eus

Originalak aurkezteko epea 2004ko maiatzaren 10ean amaituko da, 24:00etan.

4.- Epaimahaia

Epaimahaia Kultura Batzordeak izendatuko du, eta haren osaera bere epaia jaulkitzerakoan emango du ezagutzera jendaurrean.

5.- Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaia urrian bilduko da, eta hilabete horretan emango du epaia. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta www.lasarte-oria.eus webgunean argitaratuta emango da ezagutzera. Saridunei, berriz, zuzenean jakinaraziko zaie.

6.- Jatorrizkoen itzulera

Saritu gabeko lanak, ez dira itzuliko, eta suntsitu egingo dira.

7.- Interneten argitaratzea.

Saritutako lanak Interneten publikatu ahalko dira, www.lasarte-oria.eus helbidean.

8.- Adostasuna

Parte hartzeak honako Oinarri hauek onartzea suposatzen du.

9.- Sariak

Espezialitate eta Kategoria bakoitzean honako sari hauek xedatzen dira:

<u>1. Saria</u>	<u>200 € eta Diploma.</u>
<u>2. Saria</u>	<u>150 € eta Diploma.</u>
<u>3. Saria</u>	<u>100 € eta Diploma.</u>



10.- Kategoriak eta Espezialitateak

A kategoria: 2015 urtean eta geroztik jaiotakoak.		
<u>Espezialitatea</u>	<u>Gaia</u>	<u>Tamaina</u>
Euskarazko Ipuina	Gai librea	Gutxienez folio bat .

B kategoria: 2012 2013 eta 2014. urteetan jaiotakoak.		
<u>Espezialitatea</u>	<u>Gaia</u>	<u>Tamaina</u>
Euskarazko	Gai librea	Gutxienez bi folio.

C kategoria: 2009, 2010 eta 2011. urteetan jaiotakoak.		
<u>Espezialitatea</u>	<u>Gaia</u>	<u>Tamaina</u>
Euskarazko Ipuina¹	Gai librea	Gutxienez hiru folio.
Euskarazko Poesia	Gai eta metrika libreak	gutxienez 60 bertso-lerro

11.- Sarien banaketa

Sarien banaketaren ekitaldia 2024ko azaroaren 23an egingo da.

Lasarte-Orian, 2024ko apirilan

KULTURA DEPARTAMENTUA